III. ERANSKINA

HAUTATUTAKO PROIEKTUAREN FITXA TEKNIKOA (PUBLIZITATEA EMATEKO)

LAGUNTZA MODALITATEA	"IKERTALENT 2026) I+G+B FORMAKUNTZARAKO LAGUNTZAK (DOKTORATU AURREKOAK)
PROIEKTUAREN KODEA	P09
TITULUA	*Bacillus coagulans* probiotiko edo postbiotikoaren administrazioak bideratutako efektuen konparaketa dieta bidez eragindako obesitatearen eta intsulinarekiko erresistentziaren prebentzioan. Zelulaz kanpoko besikulen inplikazioa osagai efektore gisa.
ZENTROA	Farmazia Fakultatea UPV/EHU (Arabako campusa)
SAILA/ZUZENDARITZA/ARLOA	Farmazia eta Elikagaien Zientziak Departamentua Nutrizioa eta Bromatologia Saila
IKERKETA - TALDEA	Nutrizioa eta Obesitatea
PROIEKTUKO TUTOREA(K)	Iñaki Milton Laskibar, Saioa Gomez Zorita
PROIEKTUAREN LABURPENA	Obesitatea lehen mailako osasun publikoko arazoa da, zeina, besteak beste, maila-baxuko hantura kronikoa, gantz-ehunaren disfuntzioa eta intsulinarekiko erresistentzia bezalako asaldurekin lotzen baita. Hesteko mikrobiotaren disbiosia faktore etiologiko garrantzitsutzat jotzen da obesitatea eta hari lotutako asaldura metabolikoen garapenean. Hori dela eta, azken urteetan hainbat esku-hartze proposatu dira obesitatearen tratamendurako hesteko mikrobiotaren modulazioan oinarritzen direnak. Testuinguru honetan, nahiz eta probiotikoen administrazioak potentzial terapeutikoa erakutsi duen obesitatearen kudeaketan, bizirik dauden bakterioak administratzeak bere mugak ditu, bai segurtasunaren ikuspuntutik, baita horien maneiuaren ikuspuntutik ere. Ondorioz, azken boladan arreta berezia jarri da postbiotikoetan (mikroorganismo ez-bideragarriak eta haien osagai bioaktiboak), zeinak aukera seguruago eta esperantzagarritzat jotzen diren. Interes gehien sortu duten bakterioen artean *Bacillus coagulans-a* nabarmentzen da, zeina digestioarekiko erresistentziagatik eta bai mikrobiotan zein metabolismo energetikoan dituen onurengatik nabarmentzen baita. Aitzitik, ebidentzia mugatua dago inaktibatutako *B. coagulans*-aren efektuen eta hark ekoiztutako zelulaz-kanpoko besikulen (ZKB) inplikazioari buruz. Proiektu honen helburu nagusia da aztertzea ea bero bidez inaktibatutako *B. coagulans*-ak dieta bidez eragindako obesitatea eta intsulinarekiko erresistentzia prebenitzeko ahalmena mantentzen duen arratoietan, eta ikertzea ea bakterio honek ekoiztutako ZFBk efektu horietan parte hartzen duten. Horretarako *B. coagulans* probiotikoa, inaktibatua eta hark ekoiztutako ZKBen efektuak alderatuko dira obesitatean, intsulinarekiko erresistentzian eta hesteko mikrobiotan. Bi ikerlan egingo dira modu paraleloan gantz eta fruktosatan aberatsa den dieta batekin elikatutako Wistar arratoi ar eta emeekin. Animaliek egunero probiotiko bizia, inaktibatua edo haren ZKB jasoko dituzte aho bidez. Kontrol talde bat ere sartuko da ikerlanean, zeinak dieta berdina jarraituko duen baina tratamendurik gabe. Parametro metaboliko, hormonal eta hanturazkoak aztertuko dira, baita parte hartzen duten mekanismoetan sakondu ere. Hesteko mikrobiotaren osaera aztertuko da eta ZKBen karakterizazioa egingo da.
BESTELAKO INFORMAZIOA	Sarbide-profila: Giza Nutrizioan eta Dietetikan Gradua Farmazian Gradua Biokimika eta Biologia molekularrean gradua Biologian Gradua Masterra Nutrizioan edo/eta metabolismoan Kontuan izango dira: Biologia molekularreko tekniken ezagutza Ikerketa laborategietan esperientzia Esperientzia ikerketa animalien maneiuan Kongresuetan parte hartu izana Argitalpenak indexatutako aldizkarietan proiektuarekin lotura dutenak
HARREMANETARAKO DATUAK	inaki.milton@ehu.eus saioa.gomez@ehu.eus